

Ekoizte - 1259. zenb.  
XXX urtea - 2022-10-07



TOKIKOM

BARREN

# Deserrira kondenatutakoak

Miren Itziar Iriondo



ATXUTXIAMAIKA

Atxutxiamaikak telegrameko kanala du.  
Batu zaitetz ekintzen berri izateko:  
**@atxutxiamaika**



**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**BOSCH SMS2HTW60E  
ONTZI-GARBIGAILUA**



**499 €**



- 12 zerbitzu
- Eco silence motorra
- Karga erdia
- Active water teknologia

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

*Lanaren Etorkizuna  
hobetzen, Orain.*

*Pertsonen alde eginez.*

Sartu etorkizunaeraikiz.eus webgunean  
eta ikusi gipuzkoarrok zer egiten ari garen  
gure etorkizunaren alde.

Gipuzkako  
Foru Aldundia



ETORKIZUNA  
ORAIN



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR - 943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola, Maialen Sanchez. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.

 [facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)

 [twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)

 [instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)

Alex Segade

Kazetaria

## Kirolaren elitismoa



*“Esan daiteke kirolak nolabaiteko elitizazio prozesu bat jasan duela azken urteetan”*

Urteetik urtera, geroz eta kirol gutxiago ikusi dezakegu irekian telebistan. Orain dela ez asko futbola, saskibaloia, tenisa, auto eta moto lasterketak irekian ikusi genitzakeen telebistan, baina orain egoera horretatik oso urrun gaude. Kirol guztia ordainpeko telebistan dago. Esan daiteke kirolak nolabaiteko elitizazio prozesu bat jasan duela azken urteetan, kirola ikusteagatik ordaindu dezakeenak duelako bakarrik kirola ikusteko aukera.

Ez da horrela izan behar. Batez ere, txikienei kirolarekin duten kontaktua murrizten zaielako. Kirolak txikiengatik oso garrantzitsuak diren baloreak bultzatzen ditu, erreferenteak ematen dizkie ete orokorrean jarrera osasuntsuak sustatzen ditu. Hori guztia, era batean, murriztu egiten da kirola ordainpeko telebistan egonda, eta onartezina dela uste dut. Badakit telebista-eskubideak oso garestiak direla, baina Administrazio Publikoek ahalegin bat egin beharko lukete kirola bere tokira bueltatzeko, telebista irekira. Orokorrean oso kirol gutxi ikusten dugu irekian.

Gainera, kirola ikusteagatik ordaindu beharreko prezioa urtero igo egiten da, eta etxeetan egiten den ahalegina gero eta handiagoa da. Iritsiko da momentu bat non jasanezina izango den kirola ikusteagatik ordaintzea eta kirola guztiz elitista bihurtuko da, dagoeneko ez bada elitista. Gutxi batzuk jarraitu ahal izango dute kirola ikusten. Hortaz aparte, kirola zuzenean ikustea ere oso zaila da, sarrerak oso garestiak direlako, eta zuzeneko ikusleen kopurua murriztuz doa, moto lasterketetan gertatzen ari den bezala. Futboleko partida bat zuzenean ikustea, zirkuitu batera joatea... ahalegin ekonomiko handia suposatzen du kirolzaleentzat. Zure talderik gustukoaren kamiseta oso garestia den kontua beste aldi baterako utziko dugu.

*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

-----

### **Energia berriztagarria bai; mendiak txikitu ez**

Gipuzkoara atzerritik etorritako enpresa handiak zentral eolikoak egiteko baimenak tramitatzen ari dira. Han eta hemen aurkeztutako proiektuen erritmo berean sortzen ari dira taldeak, bertako mendietako ondare naturala, arkeologikoa, geologikoa, historikoa, paisajistikoa eta espirituala babesteko, zein inguruetako baserrietako eta herrietako biztanleak, haien bizitokia, haien osasuna eta jardun ekonomikoa -bereziki nekazaritza jarduerari lotutakoa- defendatzeko. Eta elkarlanean hasi gara.

Mehatxua ez da nolana hiko: 200 metro luze eta 158 metro zabal liratekeen makroelikoak aurkeztu dituzte -Elgeakoak halako bi baino altuagoak-, 5 metro zabal baino gehiago izango liratekeen errepide berriak mendi gainetaraino eta hauetan zehar, hormigoizko zimentazio erraldoiak eta abar luzea. Dorre eolikoak material mugatuz egiten dituzte. Material horiek lortu, garraiatu eta manipulatuak kutsatu eta energia fosil asko gastatzen du. Bestalde, dorre eolikoek hegalek -70 metro luze edo luzeago direnak- gehienez 25 urtez funtzionatzen dute. Hondatzen direnean, oraindik orain, hondakin moduan lurperatzen dituzte gehien-gehienak. Berriztagarriak?

Erauntsi mediatikoen zabaltzen duten mezua da ez dagoela makroproiektuok berehala egin beste erremediorik. Ez da, bada, egia: energia lortzeko modu asko daude dagoeneko martxan, urrutira joan gabe, Euskal Herrian bertan, eta sortzen ari dira modu hobekien ere. Baliabide energetikoen ustiapenerako gobernantza eredu sozialak eta gertukoak baliagarrienak dira, instalazio txikiagoak energia kontsumituko den lekuetatik gertuago jarrita, jada artifizializatuta dauden eremuak lehenetsiz -teilatua, industrialdeak...-, efizientzia energetiko hobea lortuz eta kalte txikiagoa eraginez. Europa erdialdeko hainbat herrialdetan bide horri ekin diote, eta horrekin batera debekatu egin dute mendietan eolikoak jartzea.

Esandako guztiagatik, Gipuzkoako mendiak babestearen alde gauden eta aurkeztu diren

proiektu eolikoak gerarazteko lanean gabiltzan taldeok urriaren 12an Elosun bukaera izango duten mendi-martxei batzeko deia egiten diegu herritarrei.

**Gipuzkoako Mendiak Aske eta Karakate Bizirik Elgoibar (beste hainbat plataformarekin batera)**

### **Eredugarria**

Martitzenean, hileta batera zihoan andre edadetu bat ondoezik sentitu zen elizako arkupeetan. Zorabiatu egin zen, eta bihotza gelditu zitzaion. Berehala neska talde bat gerturatu zitzaion; osasun-teknikariak, erizainak eta medikoak zeuden haien artean, eta erabat koordinatuta, eta BBB bat egin ondoren, Elgoibarko auzokide hori bihotz-geldialditik ateratzea lortu zuten. Elkarrekin inoiz lan egin gabekoak ziren, eta bikain koordinatu ziren, anbulantzia iritsi zen arte. Egoera hura ikustek harrotasunez bete ninduen: neska elgoibartar haiek nola elkartu ziren, batera lan eginez, tragedia itxura zeukan egoera egonkortuz.

**F. A.**

### **Okerrak zuzentzen**

Joan zen asteko alean Josu Lariz elgoibartarra preso dagoela aditzera eman genuen, eta informazio hori ez da zuzena. Josu Lariz Montevideon (Uruguai) bizi da, baina ez dago preso. 1984an alde egin zuen Elgoibartik Poliziarengandik ihesi, eta urte batzuk Iparraldean egin ostean, Uruguaira joan zen. Poliziak atxilotu egin zuen, eta Argentinara eraman zuten. Han aske utzi zutenean, itzuli zen berriz Montevideora.

**BARREN astekaria**

# Guk eman dugu izena!

## MAIDER REJAS

Belarriprest




"Lantokian *arigunea* sortu dugu eta langile bakoitzak *ahobizi* edo *belarriprest* moduan parte hartuko dugu. Jendaurrean egiten dut lan, eta honekin bermatu nahi dugu gure lantokian bezeroek uneoro euskaraz egiteko aukera izango dutela.

Aurreko edizioetan ere parte hartu izan dut, baina egia da gaztelaniaz hitz egiten nuenekin, berdin jarraitzen dudala. Ezezagunei euskaraz egiten diet beti lehen hitza, ondorengo harremana euskarazkoa izan dadin. Aurten belarriprest moduan parte hartuko dut, eta nire aurtengo helburua izango da euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz aritzea".

## BRANDON KELIKFUNI

Ahobizi




"Lankide batek eman zidan Euskaraldiaren berri, eta parte hartzera animatu ninduen. Aukera ona iruditu zitzaidan eta euskaraz gehiago egiteko eman dut izena. Euskara lanean bakarrik erabiltzen dut, eta gustatuko litzaidake beste esparru batzuetan ere erabiltzea. Gurasoak

Kamerungoak dira, eta etxean frantsesez edo gaztelaniaz hitz egiten dugu. 10 urte nituela iritsi nintzen Elgoibarrera, eta hemen bizitzeko euskara ikastea garrantzitsua iruditzen zait. Ikasketak euskaraz egin ditut eta hitz egitea apur bat kostatzen zaidan arren, dena ulertzen dut. Gustatuko litzaidake jende gehiagorekin egitea euskaraz".

## MARIAN CABALLERO

Belarriprest



"Aurreko edizioetan ere eman nuen izena, eta aurten ere ez dut dudarik izan. Lehenengoz *Belarriprest* txapa jarri nuenean laneko harreman batzuk aldatu nituen. Batzuk euskaraz egiten hasi zitzaizkidan, eta oraindik mantentzen dugu

harreman hori. Dantza taldean dena euskaraz egiten dugu, eta hango lagunekin kalean ere egiten dut euskaraz. Jendea zein harremanetan ezagutzen duzun, hala segitzen duzu gero. Ohiturak aldatzea oso zaila da. Badaukat lagun bat euskaraz dakiena, baina gaztelaniaz ezagutu ginen eta horrela jarraitzen dugu. Dena dela, Euskaraldia ariketa oso ondo dago, eta merezi du ohiturak aldatzeko ahalegina egitea".

## EKAIN LAZKANO

Ahobizi



"Euskaraldia bezalako ariketak oso garrantzitsuak dira euskara sustatzeko, eta horregatik eman dut izena. Gure enpresak entitate moduan eman du izena, eta horren barruan eman dut izena nik ere. Finantza munduan egiten dut lan, eta batzuetan

teknizismoak erabiltzen ditugunez, gaztelaniara jotzen dugu, baina, gure enpresan, oro har, euskara oso barneratuta dago eta saiatzen gara euskaraz lan egiten. Aurreko edizioan ere eman nuen izena eta ondo moldatu nintzen ariketa egiteko. Tamalez, gaur egun oraindik beharrezkoak dira horrelako ekimenak eta parte hartzea garrantzitsua da".

Zuk ere izena eman nahi baduzu: [izenematea.euskaraldia.eus](https://izenematea.euskaraldia.eus)



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

📞 943 744 112

📞 688 634 044



### **Toletxe kalean dagoen txapak sekulako zarata ateratzen du:**

"Toletxe kalean autoak mantsoago ibiltzeko gomazko baden bat zegoen lehen, baina bada denbora kendu zutela. Zuloa estaltzeko txapa bat jarri zuten, eta autoak gainerik pasatzen direnean sekulako zarata ateratzen du. Behin behinekoa izango zela pentsatu genuen, baina denbora pila bat pasatu da dagoeneko, eta traba handia egiten du sortzen den zarata horrek. Eskertuko genuke behingoz zuloa estali eta txapa hori kentzea".



### **Lerungo industrialdea ez da erretako autoak edukitzeko lekua:**

"Hilabeteak dira Lerungo industrialdean hiru auto daudela erreta, eta ez zaigu horretarako leku egokia iruditzen. Aparkalekuak kentzeaz gain, sekulako zikin itxura hartzen du inguru horrek. Jende asko ibiltzen da pasiatzen, eta itxura oso txarra ematen du auto horiek hor ikusteak. Dagokionak mesedez kendu ditzala auto horiek hortik lehenbailehen".



### **Edukiontzi marroira ezin da plastikorik bota:**

"Toletxe kalean bizi naiz, eta ia egunero plastikozko poltsaren bat ikusten dut hondakin organikoaren edukiontzi marroian. Jendeak ez du ezer errespetatzen. Agian berriro ere txartel sistema martxan jartzea ondo legoke, horrelako egoerak kontrolatzeko".



## Dislexiaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute bihar, Elgoibarren



*Dislegi Debabarrena elkarteko kideak.*

Urriaren 8a Dislexiaren Nazioarteko Eguna da, eta horren harira, dislexia ezagutzera emateko hainbat ekimen prestatu dituzte Dislegi Debabarrena Elkarteko kideek, Udalaren eta Danobatgruppen laguntzarekin. 10:00etatik aurrera dislexiari buruzko informazio-mahaia jarriko dute Kalegoen plazan. Irakurketa errazari buruzko saioa ere antolatu dute Olaia Revert eta Udal Liburutegiaren laguntzaz, eta baita etxeko txikientzako jolasak, tailerrak, aurpegi margotzeak...ere. 11:30ak inguruan Urban Sketching margoketa saio bat emango du Ibon Serranok.

### San Migel jaietan zozkatutako orgatila banatu dute



San Migel jaietan saldutako errifaren zozketa egin dute, eta agertu da dagoeneko irabazlea: 4739 zenbakiarekin, Elorri Irusta Arrizabalaga izan da sariduna. Jai Batzordeko Tomas Urgoitiaren eskutik jaso du saria.

### Maialen Gurrutxaga izango da EAJren alkategaia 2023ko Udal Hauteskundeetarako



Elgoibarko EAJk aho batez aukeratu du 2023ko Udal Hauteskundeetarako zerrendaburua: Maialen Gurrutxaga Uranga (Elgoibar, 1992). 19 urterekin batu zen EGira, eta 2015etik Elgoibarko Udaleko zinegotzia da. Euskara, Gazteria eta Berdintasun Sailen arduraduna da Elgoibarko Udalean eta EAJren bozeramailea ere bai legegintzaldi honetan. 2016tik legebiltzarkidea ere bada Eusko Jaurilaritzan. Ikasketei dagokionez, kimikan graduatua da EHUUn, eta ikasketak amaitu berritan plastiko teknikoaren inguruko enpresa txiki bat sortu zuen lankide batekin.

Honela aurkeztu zuen bere burua EAJren alkategaiak: "Alderdiari eskertuta nago, babes handia eman dit beti eta oraingoan ere eman ahal zidaten babes handiena jaso dut: aho batez hautatu naute alkategai izateko. Plazera da niretzat, eta erantzukizuna ere bai. Ilusio handiz hartu dut ardura hori. Politika izugarri gustatzen zait, gizartearekin harremantzeko eta konektatzeko aukera ematen duelako. Kaleko umea naiz, jendearekin egotea gustatzen zait eta uste dut badaukadala gaitasuna adin eta perfil desberdinetako jendearekin harremantzeko. Legebiltzarrean egon izanak beste ikuspuntu bat eman dit politika ulertzeko, baina udal politikak betetzen nau. Elgoibartarra naiz, beti nahi izan dut hemen bizi eta hala jarraitu nahi dut. Horregatik, gustura bizitzeko herri bat izaten jarraitzea nahi dut, nire seme-alabekin gustura biziko naizen herri bat eta horretan saiatuko naiz", adierazi du.

## Rosario Garate mendaroarrak 100 urte bete ditu

Rosario Garate mendaroarrak 100 urte bete zituen urriaren 1ean, zapatua, eta urteurrenaren harira, Iñaki Arregi alkateak lore-sorta oparitu zion, Udalaren izenean. Sahatzu azpikoa zuen aita Rosariok, Jose Antonio Garate, eta Sahatzu gainekoa ama, Agustina Arriola, eta biek izan zituzten lau alabetan hirugarrena da bera. Garagartzako fabrika zaharrean jaio zen, eta gaur, handik metro gutxira bizi da, Moxuanekoan. Urte askoan Gurelanen lan egin zuen, tailerreko lanetan, eta hantxe hartu zuen erretiroa ere. 100 urte bete izanaren sekretua zein duen ez daki, baina geneen kontua izan daitekeela uste du haren iloba Mariasun Zabaletak, izan delako eta



badelako 100 urteko langa gainditu duten beste bi ere familian.

### Plazatik Arnoate baserrira arteko bidea konponduko dute Mendaron

Plaza auzotik Arnoate baserri parerainoko bost kilometroko landa-bidea berritzeko lanak hasiko ditu Mendaroko Udalak. Hormigoizko bidea da ia bere osoan eta zati batzuetan hondoratuta, hausita edo arrakalatuta dago. 2.190 metro koadroko zatian egingo dituzte hobekuntza-lanak. Zenbait puntutan ubidea egiteko ere aprobeztatuko dituzte lanak, eta bazter-babesak ere jarriko dituzte. Lanek 103.576,17 eurotako aurrekontua izango dute, B.E.Z. barne, eta azarorako amaituta egongo direla esan dute udal arduradunek.

### Lau lagun atxilotu dituzte Elgoibarko enpresa batean ostu izana leporatuta

Lau lagun atxilotu eta beste sei identifikatu zituzten joan zen irailaren 28an Elgoibarren, enpresa batean lapurreta egitea leporatuta. 23:30ak aldera zarata susmagarriak entzun zituzten enpresa batean, eta udaltzainak eta ertzainak gerturatu zirenean ikusi zuten enpresako perimetroko sarrera behartuta zegoela eta eraikineko hormetako batean zulo bat egina zutela lapurrek. Enpresa ondoan aparkatutako furgoneta batean topatu zituzten lapurtutako gauzak, bai eta lapurreta egiteko erabilitako mailua ere.

### San Lazaro egoitzakoek askari berezia egin dute Maalako parkean



Urriaren 4an Maalako parkean egin zuten askaria San Lazaro egoitzako egoiliarrek eta egoitzatik eskerrak eman dizkiote Udalari emandago erraztasunengatik, bai eta Nagusilango boluntarioei eta egoitzako langileei eta senideei ere.



## Hobekuntzak egin dituzte jolas parkeetan



**E**lgoibarko Udalak bi jolas eremu berri sortu ditu eta lehendik zeuden beste bi jolas-parke berritu ditu. Ermuaranbide kalean, Elgoibar Ikastola eta Gabriel Kurutzelaegi kaleen artean dagoen belargune batean sortu dute jolas-eremu berrietako bat, material naturalak erabiliz. Robiniako zurez egindako hiru jolas ipini dituzte 150 metro koadroko eremuan. Mintxetan sortu dute bigarren jolas-eremua, lehenagotik zegoen jolas-parkearen ondoan. Oreka-jokoen zirkuitu bat ipini dute.

Era berean, lehendik zeuden bi jolas-parke berritu dituzte udan. Batetik, Giza Eskubideen parkeko jolas-parkea berritu eta handitu dute. Haur parke honek, orain arte, 78 metro kadroko azalera zuen eta 26 metro koadro handiagoa da orain. Jolasak erabiltzeko adina 2 eta 8 urte bitartekoa izango da, eta orain hiru elementu ditu: kulunka bat, txirrista eta etxetxo tematiko bat. Bestetik, San Pedro kalean dagoen jolas-parkea berritu dute, eta 140 m<sup>2</sup>-ko azalera du orain. Jolasak erabiltzeko adina 3 eta 12 urte bitartekoa da. Parke berriak lau plataforma, bi txirrista eta kulunka ditu.

## Stock kale azoka antolatu du Txankakua merkatari elkarteak astebururako



Txantxakua Merkatari Elkarteko establezimenduek aterako dituzte salgaiak eta eskaintzen dituzten zerbitzuak gaur eta bihar. Goizez, 10:00etatik 13:00etara egingo dute azoka, eta arratsaldez, 17:00etatik 20:00etara, eta ordu tarte horietan erdiguneko kaleak trafikoarentzako itxita egongo dira. 24 establezimenduk hartuko dute parte: Aranburu bitxidenda, Arauri, Bizkor, Astigarraga, Ecenarro, Ene Bada, IKUS, G&M jantzi-denda, Garate, Goiara, Gobike, Ipintza, Iria, Iriondo Kiroiak, Karkizano, Lagunak koltxoi-denda, Lete, Ferpi, Moma, Nalai oinetakoak, Olaia Martinez, Pitxintxu, Roteta elektrizitatea, Sara jantzi-denda eta Uzuri.

Stock kale azokan egindako erosketa bakoitzeko, bezeroak txartel bat jasoko du eta zozketan parte hartuko. 400 euro banatuko dituzte saritan guztira (100 euroko lau sari) eta astelehenean jakinaraziko dituzte zenbaki sariduna.

## Aerotermin sistemako galdara jarri dute Urazandiko Haur Eskolan, energiaren %25 aurrezteko

Urazandiko haur-eskolan instalatuta zegoen 25Kw-ko berogailu galdara elektriko zaharra kendu, eta horren ordez 16Kw-ko aerotermin galdara sistema instalatu du Elgoibarko Udalak. Horri esker, energiaren kontsumoa %25 jaitsiko dela aurreikusi dute, lokalaren beroketa eskaera potentzia termikoa mantenduz. Instalakuntzan egindako inbertsioa 16.998,33 eurotakoa izan da, BEZ barne. Aurreikusi duten urteko energia aurrezpena 48.185 kWh-koa da, eta egungo energiaren kostua kontuan hartuta, bi urtetan amortizatzea aurreikusi dute. Udaletik esan dute "eraikinaren eraginkortasun energetikoa hobetu, energia berdea bultzatu eta aurrezpen energetiko eta ekonomikoa lortuko" direla, "ikasleen eta irakasleen baldintzak hobetuz".

## Mendaroko sarbideko zubia berritzeko aurreproiektua aurkeztu du Foru Aldundiak

O hiko azkerketa teknikoetan zubian atzeman dituzten patologiak konpontzeko berritu asmo dute zubia eta aurrerratu dute 1.368.499,42 euroko kostua izango dutela lanok. Martitzenean aurkeztu zuten aurreproiektua Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatuak eta Iñaki Arregi alkateak eta esan zuten urtarrilean aterako dutela lizitazioa proiektuaren idazketa eta datorren urteko maiatza aldera hasiko dituztela lanak. Sei hilabeteko epea izango lukete gero lanok gauzatzeko. Obrak iraun bitartean, erreil bakarra egongo da erabilgarri.

Deba ibaiaren bi aldeak lotzen ditu zubiak (60 metro luze da, ibaia eta trenbidea ditu azpian eta bertatik pasatzen dira ur-horniduraren hoditeria eta Euskaltel, Telefonica edo Iberdrola konpainien klabe-sareak, eta horrek zaildu egiten du obra, bai eta errepidea zabalik dagoela egin beharrak ere. "Baimen asko dira behar direnak eta aurreproiektuak beharrezko baimenen tramitazioan aurrera egiteko aukera ematen digu", zehaztu zuen Oiarbidek. Aurreproiektuan jaso dute zubia zabaldu egingo dutela, ertz bakoitzean metalezko (ebaketa altzairuzko) habe bana erantsita. Modu horretan espaloiak zabaldu egingo dituzte, 1,3 metrotik bi metrora, eta errepidea bera ere zabalagoa egingo dute. Metalezko habe horiek zubiaren bi ertzetan eutsiko dira, baina hirugarren euskarri bat ere izango dute erdian. Erdiko euskarri horretatik zubiaren ertz batera 40 metro izango dira, eta bestera, 20 metro. Oinezkoen pasabidea eta errepidea bereizteko babesa ere jarriko dute.

Iñaki Arregi alkateak esan zuen "apustu estrategikoa" dela, kontuan izanda zubi hori dela herrirako eta eskualdeko ospitalerako sarbide bakarra eta nabarmendu zuen "elkarlan estuan" jarraituko dutela lanean Aldundiarekin. Oiarbidek, bestalde, azpimarratu zuen Aldundiak



aurreproiektua aurkeztua duela Aizkoltxo paretik Mendarora sarbide berria eraikitzeko, baina bien bitartean "zubi zaharra baldintza onenetan" mantentzea tokatzen dela.

### 2013an bideragarri ez zena, orain bada

Martitzeneko agerraldia "hauteskundeei begira herritarren iritzia manipulatzeko asmo hutsez egindakoa" zela zabaldu du EHBilduk. Ospitalerako beste bide bat egitea ondo ikusi arren, zubi zaharraren egoera aztertzea eta hura sendotzea eta zabaltea lehenatasunez egin beharreko proiektua dela jaso izan du EHBilduk azken urteotan, eta hala jaso du LAIA aldizkariaren orain arteko hiru zenbakietan ere, baina idatzian salatu dute Foru Aldundian ez dietela horretarako "premia handirik erakutsi"; 2013an, alkatetza EHBildurena zenean, Foru Aldundiak bideragarri ikusten ez zuena orain duelako: "Gauza bat argi geratzen bada kontu honekin guztiarekin zera da: hauteskunde kanpaina betean gaudela eta PNVren Diputazioa herriz-herri PNVren hautagaitzen aldeko kanpainen sartuta dabilela disimulo handirik gabe". Era berean, gai honen inguruan salatu dute ez dutela aurreproiektuaren inguruan informaziorik jaso, "askotan eskatu arren". Aurkezpenera prentsa bakarrik deitu izana ere gaitzetsi dute. "Prentsaren bidez jakin beharko dugu, beraz, berriz ere, beraiek diotenez gardentasunean txapeldunek, herritarroi eskaini nahi dugutena. Dena herriarentzat, baina herririk gabe".

# Euskal Trenbide Sareak Altzolako trenbide saihebidia lizitatuko du, 12 milioi eurorengatik

**E**uskal Trenbide Sarearen kontratazio-mahaia Altzolako saihebidia eraikitzeko lizitazioa ateratu du, 12 milioi euroren truke eta 20 hilabeteko epean gauzatzeko. Arriaga industrialdearen eta Altzola auzoaren arteko trenbide trazadura Deba ibaiarekiko paraleloan doa gaur egun, eta puntu horretan meandro bat egiten du. Lizitazioan, 500 metro luzeko trenbide bikoitza duen tunel bat eraikiko dute, horietatik 454 meategian eta 48 tunel faltsuan.

Obra honek, ibilbidea murrizteaz gain, bidaiarien eta merkantzien unitateak gurutzatzea ahalbidetuko du, eta trenbidearen zerbitzu-ahalmena handituko da. Izan ere, gaur egun noranzko bakoitzean 60 minutuz behin zirkulatzeko aukera ematen du,



eta saihebidia honi esker 30 minutuz behingo zirkulazioetara igaro ahal izango da. Era berean, tunela eraikita, bi trenbide pasagune kenduko dira: Ganekukoa eta Barazetakoa. Horren harira esan dute trazadura aldatzeak balioko duela etorkizunean egungo ibilbidea bidegorri gisa erabiltzeko.

## Gabonetako eskaparate lehiaketarako izena emateko epea zabaldu dute Elgoibarren

Elgoibarko Udalak gabonetako eskaparate lehiaketa antolatu du, eta urriaren 17ra arte dago izena emateko aukera. Merkataritzako eta zerbitzuetako establezimendu guztiak parte hartu ahal izango dute, zein sektoretan diharduten kontuan izan gabe, baldin eta gabonetako dekorazioa erakusteko ageriko erakusleihoren bat baldin badute. Parte hartzen duten dendek azaroaren 27rako prest izan beharko dituzte erakuslehoiak, eta dekorazioa ezin izango da aldatu 2023ko urtarrilaren 6ra arte. Herritarrek abenduaren 2tik 18ra arteko epea izango dute bozkatzeko. Izena emateko Herritarren Arreta Bulegora jo daiteke, edo [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webgunearen bidez ere egin daiteke.

Hiru sari banatuko dituzte: Irabazleak 300 euroko erosketa bonua jasoko du lehiaketan parte hartu duten establezimenduetan gastatzeko. Bigarren saria 200 eurokoa izango da, eta herritarren boto gehien jasotzen dituen eskaparatearen jabeak 100 euroko bonoa jasoko du. Bozketan parte hartzen duten herritarren artean 50 euroko erosketa bonoa zozkatuko dute.

## Bertako zuhaitzen haziak biltzeko irteera antolatu dute domekarako

Bertako zuhaitz landareen haztegia sortu nahi du Elgoibarko Baso Biziak taldeak, gero inguruko basoetan landatu ahal izateko. Horretarako, bertako haziak batzeko irteera antolatu dute domekarako, Morkaikorekin elkarlanean. Esan dute adin guztietako lagunek parte har dezaketela irteeran eta hiruzpalau orduko iraupena izango duela. Kalegoen plazan batuko dira, 9:30ean.

## Mendietan eolikoak jartzearen kontra batuko dira eguaztenean, Elosun

Gipuzkoako Mendiak Aske plataformaren baitan elkartu dira hainbat eragile, tartean Elgoibarko Karakate Bizirik, Gipuzkoako mendiak babesteko eta aurkeztu diren proiektu eolikoak gerarazteko. Urriaren 12an Elosun batuko dira plataforma horiek dauden herrietatik abiatutako mendi martxak, elkarrekin agerraldi publikoa egiteko, 13:00etan. Elgoibartik Elosura joateko bi aukera egongo dira. Oinez joateko 8:30ean batuko dira Kalegoen plazan, eta autobusez joateko 11:30ean Txankakuako geltokian. Itzulera 14:00ak inguruan izango da. Lanbroa eta Jai Alai tabernetan eman daiteke izena, astelehena baino lehen. Haurrentzat doan izango da eta helduek 5 euro ordaindu beharko dituzte.

## MIREN ITZIAR IRIONDO

MATXINATUEK 36ko GERRAN  
KANPORATUETAKO BAT

 Ainara Argoitia

Aita, Patxi Iriondo Aranberri, abertzalea zuen Miren Itziar Iriondok (Mendaro, 1924), eta 36ko gerran, matxinatuek Mendaro hartu aurretioxan, errepublikarren kontrolpeko lurretan aurrera egin zuen, inguruotako beste gizon askoren antzera. Horixe izan zuten faxistek haren emazte Gregoria Barrenetxea Areta eta lau seme-alabak [Imanol, Andoni, Miren Itziar eta Jel] deserrira kondenatzeko arrazoia. 38 urte zituen Gregoriak, 14, 12, 10 eta 8 urteko hurrekin kanporatu zutenean. Gaur familia haren historia lazgarria ekarri dugu hona, haren alaba Miren Itziarren hitzetan. Irailaren 27an Elgoibar 1936 taldeak Olasoko hilerrian omendu zituen familietako bat da harena, eta omenaldi-egunean egindako elkarrizketa duzue hau. Aitari ikasia du memoria egitea garrantzitsua dela eta argi eta ahoan bilorik gabe kontatu du bizitakotik oroitzen duena.



*“Beldurrez, isiltzeko joera izan du jende askok, baina gure aitak gertatutakoa jakin zedin nahi zuen”*

### **Miren, zein izan zen zuen aita?**

Francisco Iriondo Aranberri zen gure aita, Patxi, erbestean Elgoibarko alkate izendatu zutena, frankistek kanporatutakoei laguntzen ibili zena gerran, abertzalea, hezur-muinerano abertzalea. Mendaroko irin-fabrikari lan egiten zuen, komertzial, eta inguruko herrietako okin denak ezagutzen zituen. *Patxiko* esaten zioten. Gizon ondradua zen. Faxistak Mendaron sartu baino egun batzuk aurretik irten zen etxetik [1936ko irailaren 21ean sartu ziren]. Guri esan zigun ezin zuela etxera itzuli muga jarri zutelako, baina ni seguru nago beldurrez egin zuela alde aitak etxetik. Ihes egin ez balu, hilko zuketena faxistek, beste asko hil zituzten moduan. Beste

gauza bat ere izan zen gure aita: memoria egitekoa. Gure aitak dena kontatu izan zigun gerora, eta etxe gutxitan gertatu da hori. Beldurrez isiltzeko joera izan du eta du oraindik ere jende askok, baina gure aitak gertatutakoa jakin zedin nahi zuen. Mendaroarra zen gure aita eta Mendaro herri bihurtzeko ere ibili zen lanean. Elgoibarko Udalak kendu baino ez zigula egiten esaten zuen: 'Kendu eta kendu, eta urtean behin musikariak bidali!'. Hori bai, gerora, Bilbon bizi ginela, dirua ere jarri zuen Elgoibarren ikastola sor zezaten. Gustatuko litzaidake gure aitaren paperak edukitzea gaur, baina gure amak bota zituen denak. Gaur besteko balorik ez zitzaion ematen halakoei orduan eta batera eta bestera

ere ezin ibili haiekin, beldurra ere barruraino sartuta geneukalako.

**"Hezur-muinerako abertzalea" hortaz. Seme-alabei jarri nahi izan zien izenengatik ere sufritu ei zuen.**

Bai. Gure neba gazteena bataiatzeko eguna iritsi zenean, abadeak beste izen bat jartzeko proposatu zion gure aitari. 'Ipini iezaiozu beste izen bat, Jose edo..', esan zion, eta gure aitak ezetz, Jel nahi zuela [Jainkoa eta lege zaharraren laburdura] eta mehatxu ere egin zion: bataiatzeko izen horrekin edo bazihoala bera etxera umeak hartuta, bataiatu ezaren erantzule abadea bera eginda. Garbi zeukan ez ziola semeari erdal ordaina zuen izenik emango, Imanol bataiatzera joan eta Manuel jarri behar izan ziolako zaharrenari, Miren Itziar jarri nahi niri eta Maria Iciar izenez erregistratu behar izan nindutelako, eta Andoni jarri nahi eta Antonio jarri behar izan ziotelako beste nebari.

**Gogoratzen duzu faxistak Mendaron sartu ziren eguna?**

12 urte nituen nik, eta bai, akordatzen naiz. Ez nintzen beste batzuek moduan ikustera joan; hori ez. Guk beldurra geneukan demasa. Akordatzen naiz sartu zirenean Atotxan azkeneko Aberri Egun batean Andoni nebak eta biok erabili genituen dantzari arropak ere txiki-txiki egin eta ibaira bota genituela; baita buruko zapi zuria ere! Eta akordatzen naiz gure gainean bizi izan zen errotrariaren semea, Jesus Rekadi, nola etorri zen bisitan etxera, reketek jantzita. Gizon askok beldurrez alde egin zutela esan genion guk hari eta gogoan daukat hark zer erantzun zigun: *Nosotros no hacemos nada, pero los que vienen por detrás sí*. Gure amak zelako beldurra pasatu ote zuen!

Lau neba-arreba ginen gu, bigarrena ni, eta estazioko etxeetan bizi ginen, lau solairuko etxe batean. Eraikin berean, bizi ziren gure izeko Juana eta Luisa ere, etxe banatan. Tropa frankistak iritsi zirenean bando halako bat jo zuten, euretako kargudunak etxeetan hartu behar genituela esanez, eta gure etxera ere ekarri zuten komandate bat edo. Gure aitxitxak, amaren aitak, ez zion traza onik hartzen hari, beldurra ere tamainakoa geneukan, eta gauetan gure etxera etortzen hasi zen lotara. Badakizu, edozer egiten zieten emakume gazteei eta... Gure aita saltzailea zela eta gerrak etxetik kanpora harrapatu zuela esan zion gure amak komandanteari, etxera itzuli ezinda zegoela, eta

*"Makila luze bati jarri genion zapi zuri bat puntan erruki zitezen, frontea Elgoibarren zegoelako, eta abiatu ginen, beste trapu banatan hutsa hartuta, oinez, Elgoibartik Maltzagara"*

gizonak orduan: *"Pues dinos dónde está!"*. Jakin ere ez genekien garbi non zegoen, baina jakinda ere esango geniolakoan! Baita zera ere! Espainiako banderaren koloreko botoi bat jantzita ibili behar izan ginen gu, eta galdera hari erantzun ez genionez zigorra jarri ziguten: Bilbora edo etxetik 400 kilometrora alde egitera derrigortu gintuzten.

**Nola oroitzen duzu etxea uzteko eguna? Zer bide hartu zenuten?**

Maletarik-eta ez geneukan guk, eta hartu genuen makila luze bat, jarri genion zapi zuri bat puntan erruki izan zitezen, frontea Elgoibarren zegoelako, eta abiatu ginen, beste trapu banatan hutsa hartuta [1937ko otsailaren 15a zen]. Elgoibarrera ez dakit nola joan ginen, baina Elgoibartik Maltzagara oinez joan ginen, trenbidetik. *Euzkadi* egunkarian argitaratzen zituzten orduan kanporatuen izenak eta gure aitak irakurri zituenean gure izenak egunkarian, Eibarren bizi zuen anaia bidali zuen gure bila Maltzagara. Eibarko ospitalera eramán gintuen osabak. Ez genuen, baina, han denbora luzerik egin. Aita etorri zitzagun hara gero, batek daki nola eta nondik, Negurin laga zioten txalet handi batera eramateko. Gure amama inude egondako etxea zen, aberats batzuen. Gorrien beldur ziren haiek eta etxea gorriek hartu aurretik nahiago izan zuten gure aitari laga, abertzaleei baino beldur handiagoa zitelako besteei. Elgoibarko Angelita Azkue eta gizona ere hantxe egon ziren gurekin, eta ondoko txalet batean egon ziren Mendaroko Turbineneko Manuel Iriondoren emazte Josefa Mugertza eta hilabete gutxiko haien alaba Libe Iriondo.

**Noiz arte egon zineten etxe hartan?**

[Faxistek Bilbo hartu baino egun batzuk aurretik, Santurtziko portuan atrakatutako *Habana* itsasontzia errequisatu zuen euskal gobernuak ebakuazio masiborako]. Geu ere sartu ginen



*Miren Itziar Iriondo, biloba Mikel Ortiz de Zarate eta seme Jon Ortiz de Zaraterekin, iraileko omenaldian.*

ontzian, ama eta lau neba-arrebok. Frantziara eramán gintuzten, Pauillacera [Sei ebakuzio bidai egin zituen *Habanak* Santurtzitik. Arroxelera (Frantzia) bat, Southampton-era beste bat (Erresuma Batua), eta gainerako laurak Pauillacera (Frantzia)]. Akordatzen naiz egun horretan jateko goxoa geneukala etxean afaltzeko eta hura jan ezinaren penaz itsasoratu nintzela. Frantzian, euskal gobernuak zeukan aterpetxe batean egon ginen. Nik ez dakit zer dirurekin bizi izan ginen gu, gure amari inork ez ziolako lanik eman, Bigarren Mundu Gerra hasi zen arte [1939. urtea]. Dena den, aterpetxe hura itxi zutenean Saint-Jean-Pied-de-Portera eramán gintuzten. Handik banatzen gintuzten gero hara eta hona umeak. Baina gu iritsi ginenerako ez dakit ba nik banatuta zituzten gainerako umeak edo zer. Kontua da gu, lau neba-arrebok eta lehengusu bi, Elezar eta Nerea Lonbide Barrenetxea [Mendarotik Juana Barrenetxea Areta amarekin batera kanporatu zituztenetako beste bi, Sabino Lonbideren seme-alabak] Belgikara eramán gintuztela. Xeber, lonbidetar lehengusuetan txikiak, 2 urte-edo izango zituen eta hura amarekin geldituko zen-edo Frantzian, tia Juanarekin. Paquita Mardaresek eramán gintuen Bruselara, gaur nire koinata den Bakarmeren amak, eta han orduan bere mutil-laguna zuen Juan Urbistazurekin batu ginen. Euskal gobernuarentzat lan egiten zuen Urbistazuk, bai eta Pakita Mardaresek ere, gurekin

batera Mendarotik kanporatu zutenak. Eusko Jaurlaritzako Jesus Luisa Esnaolaren idazkaria izan zen gerra denboran Pakita. Belgikara iritsi ginenerako Juanek topatuta zeukan guretzako aterpea. Bruselako salesianoetan sartu zuten neba Imanol; ni, Amberes ondoko herri txiki bateko kolegio frantses batera bidali ninduten eta Andoni eta Jel neba gazteenak, Wilderrera, etxe banatara. Nire kolegiara flamenkoak etortzen ziren frantses ikastera. Denbora tarte laburrean egin genituen horrek bueltok, Bigarren Mundu Gerra hasi zenean etortzeko eskatu zigutelako aitak eta amak.

### **Non zeuden zuen gurasoak orduan? Bazen hemengo besterik haiekin?**

Aita Kanbon zegoen eta ama Ziburun, tia Juanarekin, Sabino osabarekin eta haien seme Xeberrekin, eta Ziburun elkartu ginen. Iparraldean, ez nago seguru Kanbon izan ote zen, Josefa Iriondorekin, haren senarrarekin eta seme Santos Arriolarekin ere egon ginen. Mateonekoa zuen Josefak gizona, baina orain ez naiz gogoratzen zer izen zuen. Mateoneko gizon hori eta gure osaba Sabino mendian jardun ziren lanean, arbolak botatzen. Egonaldi luzeak egiten zituzten mendian, baina pozik, lana eman ziotelako.

### **Itzuli al zineten Mendarora?**

Ez, orduan ez. Handik Tarbesera joan ginen. Etxe batean bizi izan ginen denok elkarrekin. Aita

eta anaia zaharrena fabrika batean hartu zituzten han lanerako. Ezin nezake esan zenbat denbora egon ginen han, baina esango nuke 1940an bueltatu ginela ama eta neba-arrebok Mendarora. Aita Tarbesen gelditu zen, artean beldurrez. Sei bat hilabete egin genituen guk altuen Mendaron.

### **Gerra galdu zenutenen bandokoak zineten. Zer topatu zenuten itzuleran?**

Gerra aurretik bizi ginen etxea, estaziokoa, errekisatua zuten eta 3.000 pezeta eskatzen zizkiguten gure gauzak berreskuratzeko, baina guk dirurik ez, *sensilluak* ginen-eta. Garagartzako aldapan tia Luisak zeukan etxean sartu ginen. Manolo Landa ezagutu zenuela diozu? Haren auzoak izan ginen gu. Han goratxoagoan, Moxuanekoan, Batzokia izan zuten gerra hasi aurrean, eta beheragoan, metro gutxira, zegoen Gartzianekoen taberna. Kontrarioak genituen guk Gartzianekoak. Harro zer ibili ziren ba haiek gerra hasi berritan! Mendaron, gorrien aldekoek Saint Geronsdar bat hil zuten, txokolaterikoa, eta haren mendekuz, besteek hiru hil zituzten: Etxeberriko semea [Pedro], Upai [Xalbador Etxaniz] eta Mariano Arriaga. Etxeberrikoaren hileta izan zenean, Gartzianeko alaba batek harro bota zuen, hileta ondorenean: *"Ahora ese y luego todos los que han ido por ahí"*. Etxeberriko semearena ere gogorra izan zen gero! Mutil jator-askoa zen; guapoa mutila. Lau lagun izango ziren orduan Mendaron egunero mezetara joaten zirenak, eta bera zen bat. [STV-ELA] sindikatukoa zen eta etxean ezkatututa izan zuen amak, baina sartu zirenean, frankistek pregoia jo zuten. Gordeta zeudenak errenditu eta agertzen baziren, bizia barkatuko zietela agindu zuten, eta hori entzunda, irteteko esan zion amak. Damutu zen gaixoa!. Fusilatu egin zuten. Ahalegindu zen ama senide zuten izen handiko mediku baten bitartez indultua lortzen, baina ezer ez.

### **Paquita Mardaras aipatu duzu. Zuen ibileretan laguntza handia izan zenuten. Nor zen?**

Elgoibartarra zen jaiotzez Paquita. Oso abertzalea zen, argia emakumea. Donostian bizi zen eta bulego batean egiten zuen lan, baina altxamendua gertatu zenean Mendarora etorri zen Donostiatik, gure izeko Juanaren etxera, babesago egongo zelakoan. Frankistak Mendaron sartu zirenean oporretan zegoela esan zien, baina bidali zuten gurekin batera. Negurin gurekin egin zen.

*"Santurtziko portutik abiatu zen  
itsasontzian sartu ginen geu ere,  
ama eta lau neba-arrebok.*

*Frantziara eraman gintuzten, Pauillacera"*

Guk Frantziarako bidea hartu genuenean, Paquita han gelditu zen gure aitarekin eta Santanderrerako bidea hartu zuten. Santanderren, preso sartu zuten gure aita Santoñan, eta Paquitak zuzendu zituen paperak kartzelatik ateratzeko. Jesus Luisaren idazkaria zen eta eskerrak hari. Biek Frantziara egin zuten gero. Frantzian donostiar batekin ezkondu zen, Juan Urbistazurekin, eta Venezuela amaitu zuten. Hori bai, gu lau neba-arrebok Belgikan geundenean, Juan Belgikan bizi zen, eta lantzean behin batzen gintuen lau neba-arrebok eta Amberesera eramaten gintuen elkarrekin bazkaltzeko eta elkarrekin pasatzeko eguna. Gurekin oso ondo portatu zen. Paquita eta Juanen alaba Bakarne Euskal Herrian bizi da gaur egun.

### **Venezuelatik jarraitu al zuen euskal gobernuarentzat lanean?**

Ez, ez.



*Patxi Iriondo Aranberri eta  
Gregoria Barrenetxea Areta lau seme-alabekin.*



# EZPATAK DANTZAN ERROSARIO KALEAN

✍️ 📸 Ainhoa Andonegi

Urriaren 7an izaten da Errosario kaleko Ama Birjinaren eguna, eta horren bueltan, duela 500 bat urteko tradizioa berreskuratu zuen Haritz dantza taldeak 2009an: Ezpata dantza. Aurtengo edizioa joan zen domekan egin zuten. Meza Nagusian ezpata txikiek hartu zuten parte, eta meza ostean egin zuten prozesioa. San Bartolome parrokiako atarian dantzatu zieten lehenik ezpata dantza Udal agintariei, eta handik, San Bartolome kalean behera jarraitu zuen prozesioak. Kultur Etxe aurrean egin zuten lehen geldialdia, eta bigarrena Errosario kalean, hain justu ere, Ama Birjinaren irudiaren azpian. Handik Kalegoen plazara jarraitu zuten dantzariak, eta han bukatu zen dantzaldia. Udaletxe azpian pastak eta ardo goxoa zituzten, aho-sabaiak gozatzeko. Gaur, 20:00etan Ama Birjinari salbea abestuko diote. Argazki gehiago eta bideoak: [barren.eus](http://barren.eus)










## *Jazinto Alzibar Osa*

2022ko irailaren 30ean hil zen, 92 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

***Aitte, orain arte joan zara  
bidean gurekin,  
beti aurretik argi eginez.  
Aitte, orain zure urratsen atzetik  
bidea egingo dugu  
eta jarraituko zuk nahi bezala  
denok beti elkarrekin.  
Mila muxu, aitte.***

Ettxekoak



## *Maria Alvarez Alvarez*

2022ko urriaren 1ean hil zen, 70 urte zituela.  
Haren oroimenez meza izango da, zapatuan, urriaren 8an,  
19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

***Gure ondotik joan zara,  
baina betiko izango zaitugu  
gure bihotzetan.***




## *Maria Echave Urbietta*

2022ko urriaren 4an hil zen, 92 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Isiltasunean izan dira  
zure lana eta bizitza,  
beti izango zara  
gure oroimenean eta bihotzean.***

Ettxekoak



## Bertso Eskola sortu dute Mendaron

**M**endaroko Udalak ahozko komunikazioa bertsoaren bidez lantzeko egitasmoa jarriko du martxan urrian Gipuzkoako Bertsozale Elkartearekin elkarlanean. LH3tik LH6ra arteko umeei zuzenduta dago eskaintza eta eskolak astean behin izango dira: martitzenetan, 18:00etatik 19:00etara, Gaztelekuan. Iruñe Basagoiti bertsolariak emango ditu eskolak. Gipuzkoako Bertsozale Elkartetik jakinarazi dutenez, ikasleak bertsozaletu nahi dituzte bertsoaren teknika eta komunikazio estrategiak garatuz, eta besteak beste, honakoak landuko dituzte: arrazoiak eta bestearen lekuan egoten ikastea, ahozko komunikazioa, eta herriko, eskualdeko eta euskal herriko kultur erreferentziak. Izena emateko: [berdintasuna@mendaro.eus](mailto:berdintasuna@mendaro.eus) / 943 033 282.

### Erromeriako dantzak ikasteko eskolak emango ditu Haritz dantza taldeak

Haritz dantza taldeak *Plazara dantzara* ikastaroa antolatu du. 40 eurokoa izango da kuota, eta bi talde osatuko dituzte, beteteranoena eta hasiberriena. Klaseak Merkatu Plazako edo Musika Eskolako azken solairuan izango dira, astelehen eta eguaztenetan, 20:30etik 21:30era. Eskolak datorren astelehenean hasiko dituzte, baina nahi duenak urriaren 17ra arteko epea dauka izena emateko. Informazio gehiagorako [haritzdantza@gmail.com](mailto:haritzdantza@gmail.com) edo 686 633 178 telefonora deitu daiteke. Izena emateko musika eskolara jo behar da.

### Antton Telleriak 'Nekatutak' bakarrizketa aurkeztuko du bihar, Mendaron

Antton Telleria telebista aurkezlea eta umoregilea Mendarora etorriko da bihar, *Nekatutak* izeneko umore ikuskizunarekin. San Agustin kulturgunean emango du bakarrizketa, 19:00etan. Sarrerarik ez da ordaindu behar, baina gonbidapenak beharrezkoak dira. Morroskilon eskuratu daitezke.

Beldurrezko ihes gela batera egingo dute irteera urriaren 15ean, 'Aldenik Alden' egitasmoaren barruan



*Aldenik Alden* egitasmoa arduradunak kalera irten ziren joan zen zapatuan, eta 60 bat gaztetxo bildu ziren. Dinamika desberdinak egin zituzten, eta horien artean, hurrengo irteera zein izango den adostu zuten: urriaren 15ean beldurrezko ihes-gela batetara joango dira. Interesatuak [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) webgunean eman dezakete izena, hilaren 11 eguerdira arte.

### Euskaraz ez dakitenak euskarara hurbiltzeko hitzaldia eman du Jon Maia bertsolariak



Euskaraldia Taldeak antolatuta, *Desde Extremadura al Euskera* hitzaldia eman zuen eguaztenean Jon Maia bertsolariak. Guraso kanpotarrak eta abizen erdaldunak edukitzeak bere haurtzaro eta gaztaroan izan zuen eraginaz mintzatu zen, tarte batzuetan serio eta umorez beste batzuetan. 25 urte zituela konturatu zen bera euskalduna izateko gurasoek garai hartan egin zuten ahaleginaz, eta ordura arteko lotsa guztiak harrotasun nola bilakatu ziren azaldu zuen, besteak beste. Bere bizipen eta sentimenduetan oinarritutako hitzaldia eman zuen, gertukoa eta benetakoa. Gaztelaniaz eman behar zuen hitzaldia euskaraz eman zuen, erdaldunik agertu ez zelako.



---

## ENEKO ORTEGA

Txirrindularia

---

✍️ Ainhoa Andonegi / 📸 Asier Orbea

*“Bizikletan  
hasi nintzenetik  
aurtengoa  
izan da  
denboraldi  
onena”*

Ume-umetan ekin zion bizikletan ibiltzeari Eneko Ortegak (Elgoibar, 2005), eta 10 bat urte zituela hartu zuen parte estreinakoz lasterketa batean. Orduan sartu zitzaion txirrindularitzako harra, eta ordutik gorpil gainean bizi da. Lagun Taldeako kidea da, eta Junior mailan lehiatzen dihardu. Aurten behin baino gehiagotan lortu du podiumera igotzea, eta lasterketaren batean, garaipena ere eskuratu du gainera. Eguaztenean San Pedroko Igoeran parte hartuko du, herrian, etxean, lagun eta senideen babesean. Denboraldiaz eta aurrera begirako asmoez berba egin dugu berarekin.

### **Nondik dator kizua txirrindularitzarako zaletasuna?**

Etxean umetatik ikusi izan dut bizikleta. Aitari gustatzen zaio, eta ni ere oso ume nintzela hasi nintzen bizikletan ibiltzen. Aitarekin joaten nintzen bizikletan ibiltzera. Nire aitak Lagun Taldeako kideren bat ezagutzen zuen eta haren bitartez joan nintzen lehenengoz lasterketa batera. 10 bat urte izango nituen. Probatzera joan nintzen, denborapasa modura. Baina gustatu egin zitzaidan, eta poliki-poliki hasi nintzen txirrindularitza serioago hartzen. Gehiago entrenatzen eta lehiatzen hasi nintzen.

### **Junior mailan zabilta orain. Askok entrenatzen zara?**

Aurten hasi naiz serio entrenatzen. Juniorretako lehen mailan hartu dut parte, eta datorren urtean bigarren mailan egongo naiz. Kategoria honek dedikazio gehiago eskatzen du. Egunero entrenatzen saiatzen naiz. Batzuetan neu bakarrik irteten naiz entrenatzera eta beste batzuetan taldekideekin. Gogor entrenatu behar naizenean gehiago gustatzen zait bakarrik joatea, baina saio lasaia egin behar dudanean lagunekin ere gustura joaten naiz. Egin behar dudana lanaren arabera aukeratzen dut non eta nola entrenatu. Adibidez serieak egiteko Sallobente aldera joaten naiz. Ez da auto askorik ibiltzen, eta bide aproposa da. Beste batzuetan errepidera ere irteten naiz. Neguan ez naiz gehiegi irteten kanpora, gimnasioko entrenamendua egiten dut.

### **Nola uztartzen dituzu ikasketak eta txirrindularitza?**

Batxilergoko bigarren mailan nago, eta

ikasketei ere eskaini behar izaten diet denbora. Konstantea naiz. Txirrindularitzak hori ere irakatsi dit, konstantea izaten, eta horrek ikasketetarako ere balio du. Saiatzen naiz egunero ikasten, azken unerako ez pilatzeko lan gehiegi. Entrenatzera irten aurretik eskolako lanak eginda lagatzea gustatzen zait, bestela ez naiz lasai entrenatzen.

### **Nolakoa izan da aurtengo denboraldia?**

Bizikletan hasi nintzenetik aurtengoa izan da denboraldi onena. Hasieran ez nuen horrelakorik espero, eta oso pozik amaitu dut denboraldia. Belauneko lesio batekin hasi nuen denboraldia, eta motibazioa galduta neukan. Belauneko arazoa konpondu nuenean hasi nintzen berriro ilusioa berreskuratzen, eta gogor entrenatzen. Lazkaoko lasterketa oso ondo irten zitzaidan, eta podiumera igo nintzen; hirugarren egin nuen. Horrek aurrera jarraitzeko indarra eman zidan. Entrenamenduek emaitzak ematen dituztenean dena errazago da.

### **Kirol sakrifkatua da txirrindularitza. Izan duzu inoiz lagatzeko burutaziorik?**

Bai, iaz momentu txarren bat pasatu nuen eta pentsatu nuen dena lagatzea. Euskadiko selekziorako aurre-aukeraketa batean sartu nintzen, baina gero ez ninduten aukeratu eta sekulako kolpea izan zen niretzat. Hilabete inguru pasatu nuen entrenatu gabe eta lur jota. Orain atzera begiratuta ikusten dut lorpen handia izan zela aurre-aukeraketa horretan egotea ere, baina bere momentuan desilusio handia hartu nuen. Gero Gipuzkoako selekzioarekin ibili naiz bi aldiz. Tafallan lehiatu nintzen behin, eta Frantziara joan nintzen beste behin. Frantsesek sekulako maila zuten, eta tropelean oso ondo kokatzen ziren. Tripako minez eta urduri ibili nintzen, baina esperientzia polita izan zen. Pozten naiz txirrindularitza laga ez izanaz, orain benetan gozatzen ari naizelako. Etxean animatu ninduten segitzera, eta Lagun Taldeako Alexek [Aranberri] ere asko lagundu zidan. Eskerrak eman nahi dizkiot, Lagun Taldean lan handia egiten duelako eta beti dagoelako gu animatzen. Tarteka taldeko afariak ere egin izan ditugu, eta oso giro ona daukagu. Beste herri batzuetako txirrindulariekin ere biltzen gara batzuetan, eta lagunak ere egin ditugu.

**Lasterketa bat ondo egiteko, zer da garrantzitsuena?**

Tropelean ondo kokatzea klabea da. Aurreko denboraldietan nahiko gaizki kokatzen nintzen, eta horrek besteekiko desabantailan lagatzen zaitu. Lagun Taldeako Alexek (Aranberri) lasterketa batean esan zidan zein posiziotan jarri, eta gero eraso egiteko gomendatu zidan. Hala egin nuen, eta lasterketa guztia ihes eginda joan nintzen. Azkenean bigarren egin nuen. Pena izan zen, baina lasterketa ona irten zitzaidan. Kadeteetan nengoen orduan, eta Zumaian izan zen hori. Horrelako egunak ez dira ahazten. Lasterketetan zortea ere garrantzitsua da. Adibidez erorikoren bat edo badago, inportantea da parean ez tokatzea.

**Podiumeko gorengo maila ere probatu duzu aurten.**

Bai, azkenean lortu dut nire lehen garaipena! Sekulakoa izan da. Astigarragako lasterketa irabazi dut aurten, eta oso pozik nago. Ibilbide estua zen, eta Alexek gomendatu zidan ahal banuen talde txikiren batean sartzeko. Tropela moztu zenean bospasei txirindulariko talde batean sartu nintzen, eta sprintean iritsi ginen helmugara. Ahal nuen gogorren jo nuen eraso amaieran eta neu sartu nintzen lehenengoa. Izugarria izan zen.

**Zein modalitatetan moldatzen zara hoberen?**

Terreno lauak eta aldapa gutxikoak gustatzen zaizkit gehien. Erlojupekoan ere nahiko ondo moldatzen naiz. Aldapan gora erritmoa hartzea gehiago kostatzen zait.

**Urriaren 12a data seinalatua da Elgoibarko txirindularientzat. Hartuko duzu parte San Pedroko igoeran?**

Bai, jakina. Lasterketa berezia eta polita da, lagun artean egongo naiz eta gero han goian giro oso ona egoten da. Gero, neguan, Belodromoan hartuko dut parte.

**Lagun Taldean 27 txirindulari zaudete. Zergatik uste duzu gazteak ez direla txirindularitzara gehiago gerturatzen? Izan daiteke gurasoei ere beldurra ematen diela seme-alabak errepidean ikusteak?**

Izan daiteke, baina niri ez zait horren



*"Animatuko nituzke gazteak txirindularitzara. Bizikletan ibiltzea gustatzen zaionari esango nioke probatzera behintzat etortzeko"*

arriskutsua iruditzen. Umetan lasterketak ez dira errepidean egiten, industrialdeetan baizik, eta entrenatzeko ere badaude trafiko askorik gabeko bideak. Nik animatuko nituzke gazteak txirindularitzara. Bizikletan ibiltzea gustatzen zaionari esango nioke probatzera behintzat etortzeko. Niri asko gustatzen zait txirindularitza. Eskola Kirolean probatu nituen beste kirol batzuk ere, baina honek erakartzen ninduen gehien.

**Aurrera begira, zer asmo duzu?**

Egunean egunekoa bizi dut, ez dut gehiegi pentsatzen etorkizunean. Datorren denboraldia ahalik eta onena egiten saiatuko naiz, eta gero gerokoak. Junior mailatik afizionatuen mailara alde handia dago, eta ikusi beharko dut zer aukera ditudan. Erabakia hartzeko unea iristen denean, erabakiko dut.

## Laura Rodriguez eta Iris Abarrategi podiumera igo dira Gredosko ultra lasterketan

**G**redosko mendilerroan, Avilan (Gaztea-Leon, Espainia), jokatu zuten ultran hartu zuten parte Laura Rodriguez eta Iris Abarrategi elgoibartarrek, irailaren 17an, eta aurreneko postuetan sailkatu ziren. Mendi lasterkariak 71,5 kilometroko ibilbidea osatu behar zuten, eta Yuriy Pikh Korzhylova izan zen azkarrena (08:43:40) gizonetzkoetan. Vanessa Perez Castelaok (11:54:52) irabazi zuen proba emakumezkoetan. Morkaiko mendi taldearen izenean korrika egin zuen Laura Rodriguez Rodriguez elgoibartarrak hirugarren egin zuen 13:06:03ko denborarekin. Hain justu, Iris Abarrategi Merchan elgoibartarrak egin zuen denbora berbera, biek elkarrekin gurutzatu baitzuten helmuga. Hori dela eta, antolatzaileek biak igoarazi zituzten podiumeko hirugarren koskara. Lasterketa guztia ere elkarrekin egin



zuten biek, joan den uztailean korritu zuten Goierriko Bi Handiak mendi lasterketan egin zuten moduan.



### Igor Torresek bosgarren egin zuen Ermuko Jose Merino Memorialean

Asfalto gaineko denboraldiko lehen lasterketa jokatu zuten irailaren 24an Ermuan, Jose Merino Memorialaren 34. ekitaldia, hain zuzen ere. Lasterkariak 10 kilometroko ibilbidea osatu behar zuten Ermuko kaleetan barrena, eta 73 saltakariak lortu zuten proba bukatzea, horietako lau bakarrik emakumezkoak. Gizonetzkoetan David Garciak (32:28), Hossain Kaanache (33:31) eta Unai Zialtzetak (34:11) osatu zuten podiuma. Mintxeta Atletismo Taldeko kidea den Igor Torres Castilla bosgarren postuan sailkatu zen, 34 minutu eta 46 segundoko denbora eginda. Gainera, bere kategoriaan (Master maila) lehen postuan sailkatu zen.

### Ainhoa Lendinezek zazpigarren egin zuen Anbotoko Kilometro Bertikalean

Anbotoko Kilometro Bertikala jokatu zuten urriaren 1ean, Euskadiko Txapelketarako proba puntuagarria. Mendi korrikalariak Arrazolatik ekin eta Anbotoko tontorrean amaitu zuten korrikaldia. Gizonetzkoetan, Loic Robert (40 minutu, 45 segundo) izan zen azkarrena eta Naiara Irigoien burlatarra emakumezkoetan (47:31). Ainhoa Lendinez elgoibartarra zazpigarren sailkatu zen (54:42). Egin zuen denbora baino minutu bat gutxiago egiteko esperantza zuen arren, "ahituta eta txisparik gabe" bukatu zuen proba. Halere pozik dago, lau asteburutan bost kilometro bertikal osatu dituelako sasoi betean egon ez arren. "Ondo edo gaizki, bukatzea da beti nire helburua proba hauetan". Karakateko igoera izango du hurrengo erronka.



## Lariz eta Gorosabel aurreneko postuetan sailkatu dira Tierra Estella Epic BTT proban



**N**afarroako Aiegi herrian eta Lizarraldeako inguruetan jokatu zuten, zapatuan, Tierra Estella Epic mendi bizikleta proba. Elgoibartar eta mendaroar dezentek hartu zuten parte eta lehen postuetan ere sailkatu ziren horietako batzuk. Iñigo Lariz (Gobike\_Elgoibarko Lagun Taldea) podiumeko hirugarren koskara igo zen Master 30 kategorian eta sailkapen nagusiko 29.

postuan sailkatu zen 04:16:14ko denbora eginda. Peeter Pruus (Buuf Megamo Team) irabazleak baino 43 minutu gehiago behar izan zituen 91 kilometroko ibilbidea osatzeko. Era berean, Iñaki Gorosabel Laspiuk (Gobike) elgoibartarrak ere postu ona eskuratu zuen bere kategorian, 50 urtetik gorakoetan (Master 50). Laugarren egin zuen 05:41:21ko denborarekin.

### Garagardoa, musika eta zozketak SanloBeer azokan



Atzo, eguna, zabaldu zituen atek Sanloren garagardo azokak, eta bada berrikuntzarik aurtengoan. Salduko dituzten txartelek zenbakia izango dute eta zozketa bat egingo dute egunero, gauerdian. Honako hauek izango dira sariak, egunez egun: Osteguna: Urriaren 13an Reale Arenan jokatu den Real Sociedad-Sheriff Europa Leagueko partidarako bi sarrera, Realaren kamiseta ofizial bat eta dozena bat Voll-Damm garagardo lata. Ostirala: Afari bat bi pertsonentzako Salento Pizzerian, Realaren

kamiseta ofizial bat, hamabi Voll-Damm garagardo lata eta hamabi Keler garagardo lata. Larunbata: Urtarrilerako edo otsailerako bi sarrera Reale Arenako palkorako, janari eta edaria barne, Realaren kamiseta ofizial bat, hamabi Voll-Damm garagardo lata eta hamabi Keler garagardo lata. Igandea: Urriaren 19an Reale Arenan jokatu den Real Sociedad-Mallorca ligako partidarako bi sarrera, Realaren kamiseta ofizial bat eta hamabi Voll-Damm garagardo lata.



## Spinning, TRX eta krosfitean talde berriak sortu dituzte eta zabaldu dute izena emateko epea

**H**amabost ikastaro eskainiko ditu Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak 2022-23 ikasturtean, bai Olaizaga kiroldegian eta baita Mintxetan ere. Honakoak dira hamabost ikastaroak: Elgoibar Sasoian, aerobik uretan, aerobik, pilates, zumba, zumba gazteak, GAP, kick boxing, krosfit, TRX, igeriketa ikastaroak, spinning, k-strech, orientazio zerbitzua eta ahalduntze pertsonala. Gainera, orain arteko izen emateetan eduki duten arrakastaren ondorioz, Spinning, TRX eta Krosfit ikastaroetarako talde berriak sortzea erabaki du kirol patronatuak. Era berean, jakinarazi dute, irailen, igeriketa ikastaroetan 369 pertsonak hartu zutela parte, eta 414 lagun izango direla urrian, inoiz baino gehiago. Ikastaroetarako izen-emateak Olaizagako Kiroldegiko harreran egin daitezke, edota 943 744 415 telefonora



deituta edo [olaizagaharrera@hotmail.es](mailto:olaizagaharrera@hotmail.es) helbide elektronikora idatzita bestela.

### Berrikuntzak Euskal Herriko bola joko txapelketan

Ate joka daukagu Euskal Herriko 32. Hiru-txirlo bola joko txapelketa. Aurten, gainera, bada berrikuntza bat: Arabako bi bolatokitari jokatuko dituzte txapelketako sei jardunaldietatik bi, Aramaio herriko bi bolatokitari, Untzilla eta Etxaguen auzoetan. "Azken urteetan geldi xamar aurkitzen da bola jokoa inguru horretan, eta zuzendaritza taldeko kideon asmoa, hau indarberritzea da", adierazi du Mikel Urkia Zuloaga, Euskal Herriko hiru txirlo bola joko modalitatearen lehendakariak. Aurrenekoa



urriaren 8an Eibarren, Asola Berriko bolatokian. Elgoibarrek ez du jardunaldirik hartuko oraingo honetan.

### 375 umek eman dute izena Elgoibarren Eskola Kirolean

Astlehenean, urriaren 3an, hasi zuten Eskola Kiroleko ikasturte berria Elgoibarren. Herri Eskolako eta Elgoibar Ikastolako, LH1etik LH6ra bitarteko 375 neska-mutil ari dira parte hartzen, aurreko ikasturtean baino 21 haur gehiago. David Rodriguezek koordinatzen du lau begiralez osatuta dagoen lantaldea, eta horiek arduratzen dira talde bakoitzari astean bi saio emateaz.

Adinaren arabera hiru mailatan bereizten dituzte umeak: aurrebenjaminak (LH1

eta LH2), benjaminak (LH3 eta LH4) eta alebinak (LH5 eta LH6). Taldekako eta banakako kirolak lantzen dituzte: saskibaloia, futbola, eskubaloia, hockeya, beisbola, colpbola, atletismoa, tenisa, herri kirolak, e.a. Balioetan hezten dituzte gaztetxoak, eta asmo horretan sei arlo lantzen dituzte: teknika edo egite-ereduak, arauak, espazioa, denbora, mugimenduzko komunikazioak eta mugimenduzko estrategiak.

**LANA**

**Eskaerak**

Esperientzia handia duen erizain laguntzailea eta soziosanitarioa lanerako prest. **608 897 639**

Astelehenetik ostiralera, 15:15etik 19:15era edo 20:15era, HH, LH, DBH eta Batxilergoko eskola partikularrak emateko prest gaude. **688 610 755**

Adinekoak zein umeak zaindu eta garbiketa lanetarako prest nago. Papelak legez ditut. **641 359 024**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Prestutasun osoa: etxeko langile moduan, asteburuetan zein orduka. Erreferentzia onak dauzkatz. **632 029 884**

Adinekoak zaintzeko, garbiketa lanetarako, zerbitzari edota sukalde laguntzaile lanetarako prest nago. Esperientzia daukat. **622 023 451**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan etxeko langile moduan aritzeko prest nago. Orduka edo jaiegunetan ere egingo nuke lan. Esperientzia daukat. **652 020 464**

Adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest nago. Etxeko langile moduan lan egiteko prestutasuna. Esperientzia daukat. **688 896 630**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka aritzeko prest. Esperientzia handia daukat. **631 357 711**

Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Arreta soziosanitarioko titulazioa daukat eta praktikak eginda. **635 666 620**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. Bulego, etxe edo lantegietan garbiketa lanak ere egingo nituzke. **685 724 861**

Geriatrico laguntzailea, adinekoie edo menpekoei laguntzeko prest. Erreferentzia onak eta esperientzia handia ditut. **660 511 781**

**Eskaintza**


Batxilergoko lehen mailako ekonomia eskola partikularrak jasoko nituzke. **679 584 624 / 627 448 156**

**OSPAKIZUNAK**

1948an jaiotako elgoibartarrek ospakizuna egingo dute urriaren 22an. Hitzordua 12:00etan, Kalegoen plazan. Interesdunek 65 euro sartu beharko dituzte urriaren 20a baino lehen Laboral Kutxan. ES 1230350007250071142599

**BESTELAKOAK**

Kotxerako arrapala tolesgarria saltzen da. **659 329 118**




Whill C modeloko aulki elektrikoa saltzen da, gutxi erabilia eta oraindik bermea indarrean. **659 329 118**



 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enkainatzaile Elkartea Luzarile Kontakia</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etaldeen Administrazioako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosap@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure garaje komunitateko jabeakide batzuek trastelekuak egin nahi dituzte marraz zedarritutako euren garaje-plazetan. Jakin nahiko nuke ia garajeak itxi ditzaketan.</b></p> <p>Jabetza Horizontaleko Legean jasota dago solairu berriak eraikitzeko edo eraikinaren kanpoaldeko konfigurazioa aldatzeko aukera. Horren barruan sar ditzakegu, beraz, terrazak ixtea. Halakoak egiteko, baina, baimen administratiboa behar da. Hau da, ezinbestekoak dira obrarako Udalaren baimena eta egin beharrekoa eskatutako baimen horretara lotzea eta jabetza pribatu berririk ez sortzea. Horrez gain, komunitatearen onespena ere beharko da, jakina.</p> <p>Garajeak ixtea garajeen jatorrizko konfigurazioa aldatzearen barruan ulertu behar da, eta beraz, jabeakideen batzarrak onetsi behar du obra hori.</p> <p><b>AHOLKUA:</b> Obra hori egin ahal izateko, Udalaren baimena izatea ezinbestekoa da eta komeni da gogoraraztea zenbait udalerritan debekatuta dutela garaje-plazak ixtea.</p> <p><b>GOAR</b> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, [barren@elgoibar-koizarra.eus](mailto:barren@elgoibar-koizarra.eus) e-postara edo  688 634 044 bidalita.



**Martin**, mutil zorionak, mutil handi, gaur 4 urte potolo bete dituzulako! Patxo potolo bat etxeke guztien partez, eta bereziki Sara eta Alexen partez!



Zorionak, **bikote!** Iritsi da! Bihar egun handia! Bikain pasatuko dugu! Osorotar guztien partez, muxu handi bat!



Zorionak, **Goiuria**, atzo 11 urte bete zenituelako. Muxu eta besarkada handi bat, familiakoen partez.



## KONTSULTATEGIA

“ *Zenbatero komeni da gure aho-hortzen osasun azterketa egitea?* ”

**G**aurko kontsultategian gure dentista bisitatzeko maiztasunaz hitz egingo dugu. Lehenik eta behin, gaixoak berak duen aho-hortzetako osasunaren araberakoa dela esan beharra daukagu. Txantxarra izateko joera handiagoa duen pertsona batek dentista maizago bisitatu beharko du arazo hori ez duen beste pertsona batek baino, adibidez. Gaurkoan, gaixoaren adinaren arabera aztertuko dugu zenbatero joan beharko genukeen destistarengana aho-hortzak osasuntsu mantentzeko.

◆ 5 eta 8 urte bitarteko haurren kasuan, dentistarengana urtean behin joatea gomendatzen da, txantxarra kasu posibleak hauteman ahal izateko.

◆ Nerabeek hortzak erata dituzte, eta haurrenak baino sendoagoak dira. Aparteko arazorik ezean eta ahoko higienarako ohitura osasungarriak jarraitzen diren bitartean, bi urtean behin izan daitezke bisitak.

◆ Azkenik, pertsona helduen kasuan, dena erlatiboagoa da eta bakoitzaren arrisku-faktoreen araberakoa izan beharko luke. Hala ere, hortzetako osasun arazorik izan ez arren, urtean behin azterketa egitea gomendatzen da, gerta daitezkeen arazoak saihesteko eta konpontzeko.

**ALDAZ HORTZ KLINIKA**  
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar  
[iyd@dentalaldaz.com](mailto:iyd@dentalaldaz.com)  
**943 366 377**



- IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- MULTIKOPISTAK
- FOTOKOPIAGAILUAK
- ERLOJU INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- INFORMATIKA
- FAXA

**MEKANOSA**  
Errosario, 27-Elgoibar  
**943 740 284**



**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
[cordonvilarchao@telefonica.net](mailto:cordonvilarchao@telefonica.net)  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 986 162**



## 7 BARIKUA

**Denden ordutegian** Stock Feria. Denden kanpoaldean jarriko dituzte eskaintzak bariku eta zapatuan.

**18:30** Mahai-ingurua: 'Dolu perinatala ikusaraziz'. Esku Hutsik elkarteak antolatuta, Lilan.

**19:00** Sanlo Beer, garagardo feria. Domekara arte, Maalako parkean.

## 8 ZAPATUA

**Denden ordutegian** Stock Feria. Denden kanpoaldean jarriko dituzte eskaintzak bariku eta zapatuan.

**10:00** Dislexiaren Nazioarteko Eguna. Informazio mahaia eta umeentzako ekitaldiak. Kalegoen plazan.

**19:00** Bakarriketa: 'Nekatutak'. Antton Telleria telebista aurkezle eta umoregileak aurkeztuko du, Mendaroko San Agustin kulturgunean.

## 11 MARTITZENA

**10:00** Alvaro Espigaren koadroen erakusketa. Kultur Kafean, hilaren 20ra arte.

## 12 EGUAZTENA

**12:00** San Pedroko Txirrundulari igoera. Kalegoen plazatik.

## 14 BARIKUA

**19:00** Bideo foruma: 'Fish Tank'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lilan.

## 10 DOMEKA

**9:30** Hazi bilketa. Baso Biziak eta Morkaikok antolatuta, hirulau orduko irteera egingo dute, Kalegoen plazan hasita.



Lagunak Textil Hogarren, aurtan, berogailuan aurrezten lagunduko dizuten oherako arropa aukera zabala, zatoz eta bisita gaitzazu!

- ❖ **%100** kotoia duten franezlako edo koralinazko izarak.
- ❖ **79€tik** aurrera lumaz betetako nordikoak.
- ❖ **Sherpa** edredoiak, pisu gutxikoak eta bero handia ematen dutenak.

**San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)**



2022

# LAGUNDUKO AL DIGUZU ELGOIBARKO IZARRAREN **TONBOLA** OSATZEN?

Aurtan bai! Aurreko urteetan **TONBOLAK** izan duen estimazioak bultzatuta, **abenduaren 24an** Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Ehunka erregalu banatzea da gure desioa, baina horretarako zure laguntza behar dugu.

Animatuko zara tonbolarako erregalua ematera? Animatzen bazara, esan, ahal duzun azkarren, tonbolarako erregalua emateko prest zaudela. **Azaroaren 25a** izango da erantzuteko azken eguna. Eskerrik asko!

Harremanetarako: [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112




**Zinea**  
(Herriko Antzokian)

'Padre no hay más que uno 3'

7 barikua: 19:00  
8 zapatua: 19:00 / 22:15  
9 domeka: 19:00  
10 astelehena: 21:30

'Marmaduke'  
9 domeka: 16:30

'Olga'  
(Ongarri zinekluba)

12 eguaztena: 21:00

**Botika ordutegiak:** 09:00-13:00 7 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00  
Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

**URRIA**

7 BARIKUA  
8 ZAPATUA  
9 DOMEKA  
10 ASTELEHENA  
11 MARTITZENA  
12 EGUAZTENA  
13 EGUENA  
14 BARIKUA

**Egunez**

Yudego  
■ Oruesagasti/ ■ Arriola  
■ Oruesagasti  
Barrenetxea  
■ Ibañez  
Arriola  
Arriola  
■ Fernandez

**Iluntzean**

Yudego  
-----  
-----  
Barrenetxea  
Arriola  
Arriola  
Arriola  
Barrenetxea

■ Fernandez:  
Herriko enparantza,4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

■ Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

■ Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00  
Esther Mendinueta Berastegui - Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106



**Pedro Etxaniz Iriondo**

"Beltza"

2022ko abuztuaren 17an hil zen, 85 urte zituela.

**Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.**

Etxekoak



I.URTEURRENA

**Mercedes Fernandez Penedo**

23/07/1936 -21/09/2021

**Urtebete zu gabe.  
Gertu sentitzen zaitugu  
eta maitasun handiz  
gogoratzen zaitugu.**

Etxekoak





Anartz  
Gomez  
Marcoida  
7 urte, Elgoibar



Jason  
Felguera  
Andrei  
7 urte, Elgoibar



Unax  
Romera  
Etxaniz  
8 urte, Elgoibar

*"Elgoibarko konpasak"*



# G R E M I O N E N GIDA

**AROZTEGIA**

**Ulazia**  
**AROZTEGIA ETA ENBALAJEAK**  
 Alibuxuri industrialdea, 1-O/ 1-P  
**943 740 547**



**ELEKTRIZITATEA**

**egoluz**  
 ELEKTRIZITATEA S.L.  
**Andres: 630 957 345**  
**677 512 462**  
 Pedro Migel Uruzuno, 14 beheha  
 20670 ELGOIBAR  
 Bulegoa: **943 200 697**  
 ego.luz@hotmail.com

**ITURGINTZA**

**ONGI** iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
 ELGOIBAR  
 Tel.: **943 254 522**  
 Faxa: **943 254 523**  
 ongi@ongielgoibar.com  
 www.ongielgoibar.com

**AROZTEGIA**

**iraolagoitia**  
 aroztegia - altzariak - etxe-aldaketak  
 Kurutz-gain industrialdea, 9  
 20850 Mendaro  
**943 756 112**  
**636 497 485**  
 www.iraolagoitia.com

**LEIHOAK**

**LODOSO**  
**LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223  
 lodosof@gmail.com  
**943 743 490**

**ITURGINTZA**

**SANTANA**  
 Igor Santana  
**ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.**  
 Urazandi kalea, 17, beheha  
 Elgoibar  
**943 740 530 / 605 714 905**  
 santanaiturgintza@gmail.com

**AROZTEGIA**

**MAR**  
**AROZTEGIA**

Olaso industrialdea, 17 beheha  
**943 531 471**  
**609 054 978**  
 carpinterialmar@hotmail.com  


**PINTURA**

**BIOK**  
 dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar  
**943 741 552**  
**606 431 120**  
 biok@biokdekorazioa.com

**ITURGINTZA**

**PAGOAGA S.A.**  
**BULEGOA ETA ERAKUSKETA**  
 Pedro Migel Uruzuno, 8  
**943 740 512**  
 Faxa: **943 743 565**  
 tienda@pagoagasa.com  
 www.pagoagasa.com  
**BILTEGIA**  
 San Antolin, 13 - ELGOIBAR  
 taller@pagoagasa.com  
**943 740 279**

**AROZTEGIA**

**Biena S.L.**  
**AROZTEGIA**

Ermuaranbide, 12-14-16  
 tel/fax. 943 743 116  
 www.biena.eus  
 info@biena.eus  



**ERREFORMAK**

**ESTUDIOS**  
**ARRILLAGA**

Erosano kalea, 15 beheha - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

**943 744 019**  
**605 713 168**



# JOLASAREN ASTEA 2022

## Urriak 17, astelehena

### ◆ *Jolas eta kanten ikastaro praktikoa*

Ondo pasatu nahi duten gurasoentzat  
17:00etan, Udal Gaztelekuan. Euskaraz.  
Izena emateko eskaneatu QR-a.

## Urriak 19, asteazkena

### ◆ *Mahai - jokoak familian*

HH5-LH6 bitarteko haurrak  
dituzten familientzat.  
16:30-19:30, Udal Ludotekan.

### ◆ *Mahai - joko saioa*

2005. eta 2010. urteen artean  
jaiotako nerabeentzat.  
17:00-20:00, Udal Gaztelekuan.

## Urriak 21, ostirala

### ◆ *Jolas txokoak familian*

0-5 urte bitarteko haurrak  
dituzten familientzat.  
17:30-19:00, Lekuederren\*.

### ◆ *Jolasa plazara!*

HH5-LH6 bitarteko haurrentzat.  
17:30-19:00, Kalegoen plazan eta  
Bolatokian\*. Egur Arte Tailerra,  
Zubi-Ondo Elgoibar Xake Taldea,  
Biraka Dantza, Inazio Bereziartua Musika  
eta Dantza Eskola eragileek gidatuta.

### ◆ *Jolas gaubela Udal Gaztelekuan*

2005. eta 2010. urteen artean  
jaiotako nerabeentzat.  
20:00-22:00, Udal Gaztelekuan.  
Izen-ematea Udal Gaztelekuan.



## Urriak 18, asteartea

### ◆ *Bingo-jokoa San Lazaro egoitzan*

HH5-LH6 bitarteko haurrentzat.  
16:30ean, Udal Ludotekatik abiatuta.  
Izen-ematea Udal Ludotekan.

## Urriak 20, osteguna

### ◆ *Jolas saioa. ZIG gelakoentzat*

10:30-12:00, Udal Gaztelekuan.

### ◆ *Jolas txokoak familian*

0-5 urte bitarteko haurrak dituzten familientzat.  
17:30-19:00, Kalegoen plazan\*.

### ◆ *Kanpo jokoak*

HH5-LH6 bitarteko haurrentzat.  
17:00-19:00, Urazandiko parkean\*.

### ◆ *Bideo-jokoen gaineko solasaldia*

Helduentzat. 18:00etan, Aita Agirre  
Kulturguneko areto nagusian. Euskaraz.  
Izena emateko eskaneatu QR-a.

## Urriak 22, larunbata

### ◆ *Mariokart 8 Deluxe Nintendo Switch txapelketa*

2005. eta 2010. urteen artean jaiotako  
nerabeentzat. 18:00-20:00, Udal Gaztelekuan.  
Izen-ematea Udal Gaztelekuan.

Ikastaroetan izena emateko linka eta QR-a:

<https://labur.eus/S5fr3>



\*Euria bada, tokiak aldatuko dira.

\*Izena eman behar den ekintzetan, azken eguna urriaren 13a izango da, eta plazak mugatuak izango dira.

\*Ekintza guztiak doan izango dira.

Antolatzaileak:



Parte-hartzaileak:



Babeslea:



Laguntzaileak:

